


# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXV    SAN SEBASTIÁN 15 DE NOVIEMBRE DE 1911    N.º 1044



Antonio Peña eta Goñi jauna.

† 1896-KO AZAROA-REN 13-AN

# Antonio Peña eta Goñi jauna.

ILL ZAN 1896-KO AZAROA-REN 13-AN

R. I. P.

**E**USKAL-errian sortu dan ereslaririk bikañenetakoa, izan da Donostiko seme argidotar au.

Ez zituben oraindik ogeita bost urte izango, eta eresiatzaz eman zituben iritziak aintzakotzat artzen ziran, ez Españian bakarrik, baizik baita Prantziyan eta Italiyan ere.

Gai ortan idazki gain-gañekoak argitaratu zituben, eta ayen artian «Las obras de Verdi», «Impresiones musicales», «Arte y patriotismo», «Gayarre y Massini», «Barbieri y Gounod» izendatuak, eta beste zenbait geyago. Alde danetan gogo aundiz irakurtzen ziran Peña eta Goñiren lan guziak.

Barbieri-k, itzaldi gogoangarri batian, goyeneko malletara jaso zuben donostiar ospatzu onen izen naigarria; eta gizon jakintzu guztien iritzian, orduan ziran erelarien artean argi eta azkarrenekotzat zeukaten.

Egin zituben eresi mordoska bat, eta oyetatik euskal egiterakuak «Donostia», «Pepita», «Viva Hernani» eta ainbeste aldiz Euskal-errian. entzuten dan «Baskonia» zoragarria.

Gure lur-maitea-ren zale aundia zan eta Donostia maite zuben,..... egiazko donostiarrek bakarrik maite lezateken bezela.

1890-ko Uztaila-ren 28-an Billarreal-ko urian, Iparragi-ren talluntza agertzerakuan egiñ zuben itzaldi gogoangarrian, adierazi zuben gallanki zer naitazun pizkor eta sutua ziyon Euskal-erria-ri.

Bere eriyotza-ko urte mugan aurkestatzen diogu oroipen au, Arzak zanak «¡Rruchulo-ko enara!» deitu ziyon donostiar argidotarra-ri.

EUSKAL-ERRIA